

Getxo Meeting otsailaren 9an: sortu eta galdetzen ikastea

Aurreko saioan, sormena hasieratik landu genuen: beti eskatzen dugu bakoitzak zertan dihardun kontatzea asmamenaz baliatuta eta, oraingoan, eguneroko objektu bat erabili zuten, metaforikoki eta modu errazagoan erakusteko beren enpresen abantailak.

Egunero, jende berria bertaratzen da, zeinak berezko negozioa duen eta topagune bat behar duen. Era berean, beste batzuk ohikoak bihurtu dira, ohartu direlako beren negozioei buruzko *feedbacka* lortzeko, erabakiak hartzeko eta harreman baliotsuak ezartzeko balio zaizkiela.

Hain zuzen, sormena erabiltzea da harreman-zubiak eraikitze modurik errazena; horregatik, aurreko saioan irudimena aplikatu genuen dinamika baten bitartez, elkar ezagutzen ez zuten pertsonak katean sortu zezaten: lehenik eta behin, izena asmatu genuen eta, beste urrats batzuk egin ondoren, azkenean, egunkariko azal hipotetiko bat partekatu genuen, zeinean marka berriak bere arrakasta eta balioak iksutarazten zituen albiste batean.

Irudimenezko ariketa horri esker, hausnarketa egin ahal izan genuen gure enpresaz aritzean bidaltzen ditugun mezu-gakoen inguruan, eta praktikan jarri genituen gaitasun komunikatiboak, modu entretenigarri batean. Edozein enpresak badu berezitasunen bat, eta horixe transmititzea interesatzen zaigu gure bizitzan.

Kafea hartu ondoren –bertan, kontatuak egin ahal izan genituen era intuitiboagoan–, galderak egiteko abilezian trebatu ginen; horretarako, elkarriketa irekiak egin genituen, entzuteko gaitasuna hobetzeko asmoz. Helburua: elkarri lagundu ahal izatea.

Azken finean, horixe bera bilatzen dugu gure bezeroen kasuan, arazoak antzematen laguntzea gero konpontzen saiatzeko.

Saioa *estimulatzailetzat* baloratu zuten. Saioaren hitzetan, GetxoMeetingeko ohiko parte-hartzailea, “*Getxo Meetingen saioetan parte hartzean, beste enpresa batzuekin harremanetan sarteaz gain eta neure burua ezagutzera emateaz gain, ideia eta alternatiba berriak ezagutzen ari naiz, neure lana sustatzeko orduan baliagarri zaizkidanak. Benetan erabilgarria gertatzen ari zait (...) Labur esanda: sareak, ideia berriak, eta norberaren kontura lan egitean sartzen zaren esparru itxitik irtetea*”.

GetxoMeeting guztiak desberdinak dira, horregatik, izena eman behar duzu horietako bakoitzerako. Hurrengo saioan –otsailak 23–, *networking* berezia egingo dugu, kontaktu profesionalak eratzeraz zuzenduta hein handi batean. Zure zain egongo gara.

